

Saila: 20 OGASUN, FINANTZA ETA
AURREKONTU SAILA

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 23 KATASTROA

Programa: 23 CATASTRO

SAILAREN MEMORIA**MEMORIA DEL DEPARTAMENTO****I. MEMORIA**

Landa eta hiri ondasun higiezinaren inbentarioa da katastroa, haien erreferentzia geografikoarekin (planoak) eta azalerari, erabilerari, laboreei, hirigintzako ezaugarriari, mugei, balorazio ekonomikoari, jabetzari eta ondasunen motari buruzko datuekin. Laburbilduz esan liteke ezaugarri fisiko, ekonomiko eta juridikoak biltzen dituela.

Nekazaritza, hirigintza eta industria politikak garatzeko ezinbesteko elementua denez, lurraldeari buruzko informazioak gure inguruan duen garrantzia kontua hartu behar da. Ondasun higiezinaren jabetza Herri Administrazioaren jardunaren oinarritzeko elementua da, lurralde baten benetako aktibo nagusia delako.

Arabako Foru Aldundia 1984an hasi zen hiri katastroaren erregimena ezartzen. Urte horretan hasi eta 1990 arte, Arabako udalerrietako lurretan ezartzeko lanak egin ziren.

Kontuan hartu behar da katastroa ezartzeko gakoa ez dela hura prestatzea, mantentzea baizik, higiezinaren egunerokoa benetan egiten diren lurren tasazioek, hegalek eta eraikuntzek ez baitute konponbide errazik katastroko fitxetako ondasunen deskribapen zehatza eduki ezean. Behar horretatik eta lege arauetatik sortzen da katastro fidagarria egin beharra. Fidagarria izan dadin, eguneratuta mantendu beharra dago. Lan hori udalari guztietan egiten da, Arabako udalen lankidetzarekin.

2004ko ekitaldian mantentze hori gauzatzeko lan egin da. Horretarako, ahalik denbora laburrenean jaso behar izan da goian aipatutako hiru ataletako edozein aldaketa, katastroko informazioa funtsezkoa delako bai zerga kontuetan bai gainontzeko kontuetan (beketarako

I. MEMORIA

El Catastro se puede conceptualizar como un inventario de bienes inmuebles rústicos y urbanos con expresión de su referencia geográfica (planos), extensión superficial, uso o destino, cultivos, características urbanísticas, linderos, su valoración económica, titularidad y tipo de la misma de los inmuebles, resumiendo, podríamos decir que recoge las características de tipo físico, económico y jurídico.

Teniendo en cuenta la importancia que la información del Territorio tiene en nuestro entorno, como elemento indispensable para el desarrollo de políticas agrarias, urbanísticas, industriales, etc., al constituir la propiedad inmobiliaria, el principal activo real de un Territorio, resulta su valoración, un elemento básico en la actividad de la Administración Pública.

La Diputación Foral de Alava comenzó con la implantación del régimen catastral urbano en 1984, desde ese año y hasta 1990, se realizaron los trabajos de su implantación en el suelo de los municipios del Territorio Histórico.

Considerando que la clave de la implantación de un Catastro no reside en su confección, sino en su mantenimiento, ya que los problemas de tasación de suelo, vuelo y construcciones que se producen en la realidad inmobiliaria, no tienen una fácil solución, si no se cuenta con la descripción detallada de los bienes según las fichas catastrales, de esta necesidad y de su regulación legal, nace la obligación de realizar un catastro fiable, que obliga a su mantenimiento, labor que se realiza en todos los términos municipales con la colaboración de los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Alava.

Se ha trabajado durante el ejercicio 2004, en llevar a cabo dicho mantenimiento, lo que ha supuesto recoger las variaciones en cualquiera de los tres campos anteriormente referenciados, en el menor espacio de tiempo posible, puesto que la información catastral es

2004ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUN, FINANTZA ETA
AURREKONTU SAILA

Programa: 23 KATASTROA

laguntzak, gizarte ongizaterako laguntzak, etxebizitzak, doako justizia epaitegietan, mugaketak, hirigintza planeamenduak idaztea, laboreei buruzko informazioa eta landako lur sailen azalerari buruzko informazioa). Azken informazio horiek EEEri ematen zaizkio Nekazaritza Sailaren bitartez, dirulaguntzen kontrolerako.

Ekitaldi honetan katastroa berraztertzen ahalegin berezia egin da katastroko lur sailen datu fisikoen zein juridikoen eguneratzea zuzena eta benetakoa izan dadin. Horrela, bi gauza errazten dira: alde batetik, zerga kudeaketarako balio handiko informazioa eta, bestetik, Jabetzaren Erregistroarekin zerikusia duten zerbitzuak. Ondasun higiezinaren eskualdaketei lege ziurtasun sendoa ematen zaie.

2004ko ekitaldian emendiozko bultzada eman zaie Vitoria-Gasteizko Udaleko katastro berrikuspenei, higiezinaren eta euren titularitateen lur identifikazio zuzena egiteko.

Informazio hori euskarri informatikoan bildu da, mantentze lanak hobetearren eta ustiaketa ahalbidetearren, Sail osoari eskuragarri izan dakion.

Halaber, ekitaldi honetan, Arabako Foru Aldundiaren webguneko orrian eskura jartzen jarraitu da berraztertu diren Arabako udalerrietako katastro informazio grafiko eta alfanumeriko digitalizatua.

Era berean, udaletako landa eta hiri katastroa kudeatzeko sistema garatzen eta ustiatzen aritu gara, betiere katastro informatizatua zuten udaletan. Halaber, sistema klasikoan zegoen katastroa mantentzetik pixkanaka-pixkanaka sistema informatikora pasatzen ari gara. Era berean, merkatu azterketa egin da, katastro balioespenetarako eta Zuzendaritzaren gainerako arloetako (ondare eskualdaketak, ikuskatzailletza...) balioespenetarako erabakiak bermatzeko.

Ekitaldi honetan, katastroaren identifikazioa zerga arloan eta beste arlo batzuetan erabil dadin lan egin dugu, eta katastroaren identifikazioak erabiltzeko kanpainak egin dira. Aldi berean, eskura zegoen informazioa jabetzaren

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2004

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 23 CATASTRO

básica tanto a nivel impositivo, como de cualquier otro carácter, a señalar, ayudas de becas, ayudas de Bienestar Social, Vivienda, Juzgados por temas de justicia gratuita, linderos, redacción de planeamientos urbanísticos, información de los cultivos y superficies de las parcelas rústicas a la C.E.E. a través del Departamento de Agricultura para el control de subvenciones, etc.

Durante este ejercicio, se ha dado un impulso adicional a las revisiones catastrales, a efectos de lograr una correcta y real actualización de los datos físicos y jurídicos de las parcelas catastrales, facilitando una información de gran valor para la gestión fiscal, y la prestación de servicios relacionados con el Registro de la Propiedad, proporcionando una sólida seguridad jurídica a las transacciones de bienes inmuebles.

Durante este ejercicio 2004 se ha dado un impulso adicional a las revisiones catastrales en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, para la identificación territorial correcta de los bienes inmuebles y sus titularidades.

Esta información se ha recogido en soporte informático, para poder optimizar los trabajos del mantenimiento y permitir la explotación de los mismos, haciendo factible su generalización en el conjunto del Departamento.

Asimismo se ha seguido incorporado en este ejercicio en la página Web de la Diputación Foral de Alava, la información de Catastro, gráfica y alfanumérica de los Municipios de Alava digitalizados, en los cuales se ha realizado la revisión catastral.

Se ha trabajado asimismo en el desarrollo y explotación del Sistema de Gestión Catastral Urbano y Rústico de los Ayuntamientos, cuya cartografía catastral está informatizada, así como en la progresiva transformación a sistema informático de los datos consolidados, del mantenimiento de catastro en el Sistema Clásico. Así mismo se ha realizado el estudio de mercado, que sirve de soporte a las decisiones para las valoraciones de Catastro y resto de áreas de la Dirección, como Transmisiones Patrimoniales, Inspección, etc.

Durante este ejercicio se ha trabajado para la utilización de la identificación catastral en el ámbito tributario y fuera de dicho ámbito, y se han llevado a cabo campañas de uso de la identificación catastral, al mismo tiempo que

2004ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUN, FINANTZA ETA
AURREKONTU SAILA

Programa: 23 KATASTROA

erregistratzaileek, notarioek eta abarrek erabiltzeko lan egin dugu.

Era berean, ekitaldi honetan Arabako udaletako Ondasun Higiezinaren Zergaren erroldak egin dira, Estatuko eta Probintziako kuoten gaineko Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ziurtagiriak bidali dira, eta Arabako udaletara Estatuko eta Probintziako kuotak banatu dira.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA

1.- Vitoria-Gasteizko udalerrian gertatzen diren lege-aldaketa zein aldaketa tekniko guztiak zentsuan sartzea.

- Katastroren mantentze lanak egin dira, egindako mugimenduak jasotzeko, mugimendutzat hauek hartuz: Vitoria-Gasteizko udalerriko alta, aldaketa edo eskualdaketa mota guztiak, betiere uneren batean modu fisikoan nahiz mekanizatuan islatuta geratu badira.

2.- Arabako gainontzeko udalerrietan gertatzen diren aldaketa juridiko zein tekniko guztiak zentsuan sartzea.

- Katastroren mantentze lanak egin dira, egindako mugimenduak jasotzeko, mugimendutzat hauek hartuz: Lurralde Historikoko gainerako udalerrietako alta, aldaketa edo eskualdaketa mota guztiak, betiere uneren batean modu fisikoan nahiz mekanizatuan islatuta geratu badira

3.- Arabako katastroen berrikuspenak.

- Landa eta hiri ondasunen datu fisikoak zein juridikoak berraztertu dira.
- Araban izandako aldaketa juridiko zein tekniko guztiak zentsuan sartu dira.

4.- Kartografia informatizatzea.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2004

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 23 CATASTRO

se ha trabajado para la utilización de la información disponible, por los Registradores de la Propiedad y Notarios, etc.

Asimismo en este ejercicio se ha llevado a cabo la elaboración de los Padrones del Impuesto sobre Bienes Inmuebles de los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Alava, la emisión de los recibos del Impuesto sobre actividades económicas relativos a las cuotas estatales y provinciales, y el reparto de las cuotas estatales y provinciales a los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Alava.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

1.- Incorporación al censo de todas las variaciones jurídicas y técnicas que se produzcan en el término municipal de Vitoria-Gasteiz.

- Se ha efectuado el mantenimiento del Catastro, para recoger los movimientos catastrales realizados, entendiéndose como tales: todo tipo de alta, cambio o transmisión que quede reflejado en algún momento tanto a nivel físico como mecanizado en el término municipal de Vitoria-Gasteiz.

2.- Incorporación al censo de todas las variaciones jurídicas y técnicas que se produzcan en el resto de los Municipios del Territorio Histórico.

- Se ha efectuado el mantenimiento del Catastro, para recoger los movimientos catastrales realizados, entendiéndose como tales todo tipo de alta, cambio o transmisión que quede reflejado en algún momento tanto a nivel físico como mecanizado en el resto de los Ayuntamientos del Territorio Histórico.

3.- Revisiones Catastrales del Territorio Histórico de Alava.

- Se han revisado los datos físicos y jurídicos de bienes rústicos y urbanos.
- Se han incorporado al censo, todas las variaciones jurídicas y técnicas que se han producido en el Territorio Histórico de Alava.

4.- Informatización de la cartografía.

2004ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 20 OGASUN, FINANTZA ETA
AURREKONTU SAILA

Programa: 23 KATASTROA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2004

Departamento: 20 HACIENDA, FINANZAS Y
PRESUPUESTOS

Programa: 23 CATASTRO

- Sailak Geografia Informazioko Sistema erabiltzea finkatu da.
 - Ondasun higiezin argazkiak digitalizatzen jarraitu dugu; beraz, informazio hori formatu elektronikoa eskura daiteke.
- Se ha consolidado la utilización del Sistema de Información Geográfica para el Departamento.
 - Se ha seguido con la digitalización de las fotografías de los inmuebles, por lo que se encuentra esta información ya disponible en formato electrónico.